



K bulegoa


“Elebitasuna eta hizkuntza aniztasuna kultura-paisaian”

Saio irekia

2022ko martxoaren 22a

K bulegoak urteko bigarren saio irekian “Elebitasuna eta hizkuntza aniztasuna kultura-paisaia” eztabaidagai izan zituen. Martxoaren 22an, asteartean, on line egindako bileran kultura-sektoreko hainbat kidek hartu zuten parte, jakintza eta jardunbide kolektiboak ikasteko beste esperientzia batean. Nola ulertzen eta jorratzen dugun elebitasuna gure erakunde eta proiektuetan, egungo zailtasunak eta hutsuneak, egungo indarguneak eta arnaguneak, etorkizuneko erronkak, eta praktika onak (eta ez hain onak) izan genituen hizpide elkarrizketa irekian.

Nork bere burua aurkeztu ondoren, parte-hartzaileek hitz bana partekatu zuten proposatutako gaiarekin lotzeko. Hala, elebitasunari buruzko glosario kolektibo moduko bat sortu zen.



Hiztegiak gain, lelo eta aipu esanguratsuak ditugu buruan, hizkuntzari atxikiak: Euskara talde-lana da, Ahora, Euskaraz bizi nahi dut, Euskara, gurea, denona. Eta esaldi gogoangarri hauek:

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik” (J.A. Artze)

“Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria” (Koldo Mitxelena)

“Hizkuntza ezin da irakatsi, barnetik esnarazi” (W. von Humboldt)

“Hizkuntza ez da ikasten. Gertatzen da” (Noam Chomsky)

Gaian sakontzeko, aberasgarria da hainbat kontzeptutan murgiltzea, hala nola elebitasuna (soziala eta pertsonala), diglosia, hizkuntzaren ekologia, arnaguneak... baita legeek eta itunek finkatzen duten esparruan ere (Euskararen erabilera normalizatzeko legea, Europako Hizkuntza Gutxituen Karta, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala...)

Eztabaida oso emankorra izan zen hasieratik. Ikuspegi etsituak eta urteetan egindako ekarpenak balioesten zituztenak uztartu ziren.

Gaur egungo egoera eta iraganekoa beti dugu gogoan. Etengabeko konparazioa. Belaunaldi arteko topaketetan, adibidez, beterano zaildu eta hasiberri askok egoerak ez duela hobera egin aitortzen dute. Elebitasun erreala gizartean baino gehiago pertsonengan dagoela azpimarratzen da, hiztun elebakar anitz dauden heinean. Horren harira, gatazka egoerei uko egiteagatik, erlaxatzen hasiak gara. Testuinguru diglosiko batean arnagunearen funtzioa goraiatzen da, hizkuntza hegemonikotik babestutako toki eta lekuetan harremanak sendotzen direlako. Ekarpen positibotzat jotzen da.

Batzuen ustetan, euskal kulturak, euskaraz sortutako alegia, atzerakoi kutsua du. Izan ere, iritzi publikoan uste hori zabaldu da, hau da, euskal kultura kalitate baxukoa dela, nolabait gutxiesten da. Gure ekosisteman presentzia gutxi du, isolatuta bezala ikusten da, kultura eta hizkuntza hegemonikoaren aldean. Horren harira, inertzia ugari gainditu beharra dago, adibidez, leku askotan euskarazko jarduerak euskara sailek programatzen dituzte, eta ez kultura sailek.

Benetako bitartekari lana falta da, sortzaileen eta publikoaren artean. Udal erakundeek eta komunikabideek har dezakete ardura hori. Kasu esanguratsu bat, EITB Mediak Kultura Saileko aurrekontutik erdia baino gehiago bereganatzen du. Datu hori aintzat hartuta, ardatza izan beharko luke, kultur sortzaileei itzuli / eman, euskal kultura ezagutara eman, nolabaiteko itzulketa, sortzaileen lana zinez aitortu eta gizartean eragin. EITBk zentralitate oso izan beharko luke, ekosistema bera sendotzeko, besteak elikatzeko. Izan ere, komunikazioan garrantzia handia du tokiko kazetaritzak.

Beste batek iritzi dio borroka eta aldarrikapen garaietan hein handi batean errazago pizten dela “kultura”, boterea nolabait aurka duenean. Iragan hamarkadetako borroka urte haietatik Susa argialetxea esaterako sortu zen, pentsamendu eta molde berriak ekarriaz. Itxaropenez betetako datu bat: idazle berri gehienak euskaraz ari dira. Euskararen kaleko erabilera, ordea, jaisten ari da.

Nabarmentzen da hizkuntzaren kontura gatazkak sortzeak ez duela interesatzen. Euskararen Legea berebiziko aitzinaldia izan zen, eta ondoren erlaxatu gara.

Zer da euskal kultura? Batek argi du, euskal kultura berdin euskaraz sortutakoa, baina onartzen du, eztabaidagarria dela hori. Batzuetan irudi desitxuratuta islatzen du euskal kulturak, askok folk eta parke tematiko hutsaltzat hartzen baitute, haren izaera aberatsa galtzen da, zoritxarrez.

Aukera berdintasuna aipatzen da, baina ez da errealia. Egoera diglosiko eta gutxiagotu batean, euskaraz bizitzeko hautua egin behar da, aisialdian eta beste esparru batzuetan adibidez.

Gaitasun komunikatiboan eragite aldera, euskara ikasteko laguntzak ugaritu beharko lirateke, erabateko doakotasuna bermatu. Nork egin dezake zubilana? Kultura eragileek? Mintzalaguna dinamika aipatzen da, sekulako ahalegina egiten dute askok, baina gero "atzerriko" itxura izateagatik gaztelaniaz mintzatzen zaie han eta hemen.

Politika publikoetan zera lortu da, edo bultzatu nahi izan da: hizkuntzaren aldagaia ekuaziotik desagarratzea. Artista Estatutua lortu da, baina ez da jantzia geure gorputzarentzat (beste kultur sistema baten baitan sortua baita. Eta usu aipatzen den adibidea, bertsolaritza ez da jarduera ekonomikoko epigrafeetan agertzen. Euskal Herritik bertatik ekimen gutxi sortu dira, artisten profesionaltasunari begira (EKKI da horietako bat) baina gehiago behar dira.

Gauzak horrela, ondorioztatzen da euskararen lurraldeak sistema propioa behar duela, hiru administrazioen egiturak aintzat hartuta, baina sistema propioa, berriaz sortuta, gure behar izanetara egokituta. Proiektu berri bat egiazki bultzatu nahi denean (TicketBAI, esaterako) baliabide guztiak jartzen dira, eta ahal da.

Euskaraz ematen den eskaintza, antzerki eskola eta bertso eskola eragileek, adibidez, lehiatu behar dute hamaika ekimenerekin aisialdi eskaintza gero eta oparago batean.

Paradoxikoki, Covid garaian kultura erdigunean jarri da eta balioetsi egin da, haren onurak azpimiaratu dira, pertsonen ongizatean zuzeneko eragina baitu. Sinetsita gaude, kultura eta osasuna baliokideak direla neurri batean, edo kulturak osasunean eragiten duela bederen.

Kultura eskaintzaren gehigizko segmentazioa deitoratzen da, ez baitago belaunaldiarteko jarduerarik, adin ezberdineko jendea elkartzeko eta euskal kulturara batzeko hutsunea antzematen da. Gizartegintzan eragin behar da, jendea eta elkarteak, komunitatea bera finean josi eta trinkotu.

Zirkuitu egonkorak falta dira, izan ere, banako eragile edo promotore franko dago baina zirkuitu sendorik ez dago, euskal kultura ardazteko gaitasunaz jarduteko.

Kulturaren gehigizko ikusgarritasun aroan, eskuarki edukiontzi eta ekipamendu ugari (erraldoiak batzuk) eraikitzen dira, baino gero edukiz hornitu behar dira, eta horrek zailtasunak dakartza gero.

Beka gehiago behar dira euskal sortzaileentzat (Geuretik sortuak ekimena jardunbide egokia). Sortzaile eta eragile txikiei espazio gehiago eskaini, turismo jardueri eskaintzen zaienarekin aldean alde handia dago. Guneak beharrezkoak dira bai, baina bideak ere bai, bide malkartsua izanda ere bidea "urratzeko". Praktika ona da Laburbira ekimena, sortzaile berriak eta arituak uztartzen ditu eta.

Etxepare Institutuak euskal kultura mundura jalgitzen duen bezala (bere xedea nazioartekotzea da), hemen bertan ere, etxe barnean, horrelako egitura beharrezkotzat jotzen da, euskal kultura gure plazetara behar bezala zabaltzeko. Kanpoko artisten ondoan adibidez bertako sortzaileak jar daitezke, hasierako gonbidatu moduan.

2022ko Topaldia Jardunaldian euskara eta kultura uztartzen dituzten hainbat ekimen aurkeztu ziren eta gogoan izan ditugu: Elgoibar eta Iruñerriko esperientziak, besteak beste. Zaleak sortu behar dira, publiko berriak erakarri, etorkizuneko sortzaileak eta antolatzaileak baitira.

Gastronomia alorra aipatzen da, kulturean izan duen pizkundea azpimarratzen da. Eredu horren arrakasta aztertu behar genuke, irakaspen baliogarriak identifikatze aldera, izan ere, sekulako jauzia izan du, etxe guztietan sartu delako eta halaber berrikuntza, edukiak, moduak, joerak... ekarri dituelako.

Erabakia estrategikoa da erabat, gutxiengo linguistikoa aintzat hartzea. Adibidez katxet minimoak minimoak ezartzea praktika ona litzateke, diziplinaka aztertzea kulturagintza.

Hizkuntza aniztasunari dagokionez, legeak elebitasuna aintzat hartu eta bermatzen du, baina euskara eta gaztelaniaz harago? Gipuzkoan 130 hizkuntzatik gora hitz egiten dira, horietako 10 bat 1.000 hiztun baino gehiagok ezagutzen dute. Finean, mundua eleaniztuna da, Euskal Herria ere bai. Hortaz, nola joka dezakegu kultur eragileok errealitate plural horren aurrean? Zer ekarpen egin ahal diogu aniztasunari?

Hizkuntzari dagokionez, integrazioa ezin da asimilaziorantz lerratu. Hizkuntz aniztasunak koloreak, usainak, zapoak... aberasten baititu. Egokia litzateke, etorkinak euskaratik pasaraztea, euskararekin harremantzea baina askotan arrakala sozioekonomikoak baldintzatzen du, kanpotik datozenek bestelako premiak dituztelako. Hala ere, tresnak eman ahal dizkiogu beraiek ere sortzaile izateko.

Euskara kohesio tresna izan daiteke, nahiz eta beste behar batzuk izan. Ondo legoke, elkarrekin bidea egitea, etorkinei galdetzea eta kultura eskaintzan islatzea. Horren harira, hainbat praktika on hizpidera ekartzen dira: Senegaleko jatorriko komunitatearekin jorrotutakoa (Getarian eta Hondarribian), SOS Arrazakeria elkarteren Bizilagunak programa, Munduko arrozak ekimena... Gaur egun, urrunekoekiko gertuago gaude baina isolatuagoak bizi gara.

Gidak eta txostenak | Guías e informes

Elebitasuna-eta-hizkuntza-irizpideak

<https://www.euskadi.eus/elebitasuna-eta-hizkuntza-irizpideak/web01-a2wz/eu/>

Kontzeptuak

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Diglosia>

https://eu.wikipedia.org/wiki/Hizkuntza_gutxitu

https://es.wikipedia.org/wiki/Lengua_minorizada

<https://kanaldude.eus/bideoak/3254-zze16-euskaldunaren-nekeak-estres-linguistikoa>

Euskararen Legeak 30 urte / 30 años de la Ley del Euskera

https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA_WEB.pdf

Declaración Universal de Derechos Lingüísticos

https://es.wikipedia.org/wiki/Declaraci%C3%B3n_Universal_de_Derechos_Ling%C3%BC%C3%ADsticos

https://culturalrights.net/descargas/drets_culturals389.pdf

Portal de Derechos Culturales

<https://culturalrights.net/es/>

Soziolinguistikako ikerketak

<https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/aldahitz-ikerketa-uler-saioak-metodologia/>

<https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/ciudadania-y-euskera-claves-y-procesos-para-la-activacion-resumen-de-resultados/>

<https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/tokian-tokiko-hizkuntza-aktibazioa-herritarrak-eta-euskara-aktibaziorako-prozesua-eta-gakoak-ikerketaren-emaitzak-2016-2019/>

Erakundeak | Instituciones

Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuna

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdintasuna>

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/kultura-hizkuntza-politika-saila>

Euskarabidea

<https://www.euskarabidea.es>

Euskal Kultur Erakundea

<https://www.eke.eus>

Basque Center on Cognition, Brain and Language

<https://www.bcbl.eu>

Euskalgintzaren Kontseilua

<https://kontseilua.eus>

PuntuEus Fundazioa

<https://www.domeinuak.eus>

Soziolinguistika klusterra

<https://soziolinguistika.eus>

Terralingua – Your Hub for Biocultural Diversity

<https://terralingua.org>

Bibliografía | Bibliografía

El cerebro bilingüe (Albert Costa)

Hizkuntza ados jartzeko da (Jon Sudupe Martija)

Ecología lingüística y lenguas minorizadas: algunas notas sobre el desarrollo del campo (Albert Bastardas Boada)

<http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/133760/1/Ecolog%C3%ADa%20ling%C3%BC%C3%ADstica%20y%20lenguas%20minorizadas.pdf>

¿Qué es ecolingüística? (Hildo Honório do Couto)

<http://www.ecoling.unb.br/images/Qu-es-ecolingstica.pdf>

Txillardegiren lanak

<https://www.jakin.eus/txillardegi/digitalizazioaz#edukia>

Zenbait hitzaldi (Koldo Mitxelena)

Euskara eta Hizkuntzari buruz. Hizketan semearekin; Euskara para castellanohablantes (Beatriz Fernández)

Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna (UEU)

Crecer con dos idiomas. Una guía práctica del bilingüismo (Una Cunningham-Andersson y Staffan Andersson)

La educación lingüística, entre el deseo y la realidad (Cristina Aliagas)

¿Quién hablará en europeo? (Marta Domínguez Jiménez, Arman Basurto)

Orhipean: gure herria ezagutzen (Xamar)

El futuro de las lenguas (Belen Uranga)

Babeli gorazarre; Babel o barbarie (Patxi Baztarrika)

Jardunbide egokiak eta kanpainak | Buenas prácticas y campañas

Kode poesia

<https://kodepoesia.eus>

Lehen hitza

<https://www.lehenhitza.eus>

Korrika

<https://www.korrika.eus>

Euskaraldia

<https://euskaraldia.eus>

Unesco atlas

<http://www.unesco.org/languages-atlas/index.php?hl=en&page=atlasmap>

101 ELE, Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzen aniztasuna eta aniztasun kulturala ezagutarazteko webgunea

<https://101.ahotsak.eus/>

Badu bada erakusketa

https://www.santelmomuseoa.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=8239&lang=eu

<https://www.santelmomuseoa.eus/uploads/Exposiciones/Badu-bada/folleto-badu-bada.pdf>

Pantailak euskaraz

<https://www.pantailakeuskaraz.eus/>

Lutxo Egia "Transitoak"

<https://www.berria.eus/paperekoa/1736/034/001/2015-07-14/askoz-gehiago-dago-emateko.htm>

<https://www.berria.eus/paperekoa/2277/022/002/2015-06-27/trans.htm>

<https://topaldia.topagunea.eus/hitzaldia/transitoak-hiri-atopikoa/>

<https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/boulevard/audios/detalle/3291390/lutxo-egia-bilingual-transitoak-euskara-radio-euskadi/>

[https://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/detalle/7648522/euskaraldia-entrevista-al-escritor-lutxo-egia-21-noviembre-2020-/](https://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/detalle/7648522/euskaraldia-entrevista-al-escritor-lutxo-egia-21-noviembre-2020/)

<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/7648307/euskaraldia-lutxo-egia-idazleari-elkarrizketa-2020ko-azaroak-21-/>

<https://www.berria.eus/paperekoa/1744/030/001/2015-06-11/hizkuntza-hegemonikoa-ahaztuta-biziko-naiz-hilabetez.htm>

Munduko arrozak

<https://mundukoarrozak.info/que-es-arroces-del-mundo/>

Prentsari begira | Revista de prensa

Bide bakarra eta beste zenbait bide Harkaitz Cano

<https://www.jakin.eus/show/25db4f7e4f129cbf8a8eaa28fb255c28ed36c75f>

<https://www.jakin.eus/show/6569534e02dfa5f9238039193deffc4f103db5b7>

Quebecen harira

<https://www.ledevoir.com/opinion/idees/507302/la-langue-de-la-culture-au-quebec>

Eskubideen urraketa

<https://www.berria.eus/albisteak/211174/hizkuntza-eskubideen-urraketa-laquetikotzenraquo-ari-dela-salatu-du-behatokiak.htm>

Hitzaldiak | Charlas

Arnasguneak

<https://www.argia.eus/multimedia/solasaldiak/arnasguneak>

Zer garrantzia eta zer funtzio du kulturgintzak euskararen garapenean?

<https://youtu.be/yOoOvrGurf8>

Hizkuntza guttitiak munduan: egoerak eta perspektibak Hizkuntza-ekologiaren ikuspegitik

<https://www.eke.eus/eu/euskal-etnopoloa/ikergaiak/hizkuntza-aniztasuna/euskararen-munduak-indar-guneak/hizkuntza-guttitiak-munduan-egoerak-eta-perspektibak-hizkuntza-ekologiaren-ikuspegitik>

Eusko Ikaskuntzako Solasaldiak: Paula Kasares - Xan Aire

"Sinergiak gauzatzen direnean hizkuntza garatzeko aukera gehiago ematen dira"

<https://vimeo.com/245166571>

El impacto del bilingüismo en el cerebro | Esti Blanco-Elorrieta | TEDxTarragona

<https://youtu.be/YwtoS3AxN-I>

El bilingüisme social pot matar una llengua | Carme Junyent | TEDxReus

<https://youtu.be/GW5lybuTK6E>

Jardunaldiak eta azokak | Jornadas y ferias

Topaldia elkartruckerako eta hausnarketarako jardunaldia

<https://topaldia.topagunea.eus>

<https://topaldia.topagunea.eus/topaldia-2022>

<https://topaldia.topagunea.eus/topaldiak/topaldia-2015-kultur-komunitate-bizia>

<https://www.youtube.com/hashtag/topaldia>

<http://jalgika.eus>